

# 2/23

## *irizpena*

Seme-alabak dituzten familientzako  
laguntzen

Dekretu-proiektuari buruzkoa

Bilbon, 2023eko urtarrilaren 16a



CES  
EGAB

Consejo Económico  
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

Irizpena 2/23

---

## I.- AURREKARIAK

---

2023ko urtarrilaren 2an Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren idatzia jaso zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean, eta horren bitartez Seme-alabak dituzten Familientzako Laguntzen Dekretu Proiektuari buruzko txostena eskatu zen, maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearena.

Kontsultatu zaigun ekimen arautzailearen xedea da Eusko Jaurlaritzak, familia politika arloan eskuduna den sailaren bitartez, seme-alabak dituzten familiei emango dizkien laguntzen esparru berria arautzea, jarduketa modalitate hauen bitartez: a) Laguntza ekonomikoak seme-alabengatik; b) Ezohiko laguntza ekonomikoak erditze anizkoitza, adopzio nazional anizkoitza eta nazioarteko adopzioa direla eta.

Dokumentuaren kopia berehala igorri zitzaion Batzordeko Osoko Bilkurako kide guztiei, proposamenak eta iritzia bidaltzeko, eta horien berri emateko kasuan kasuko Lan Batzordeari, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamendu Erregelamenduan ezarritakoaren arabera. 2023ko urtarrilaren 12an Sozial Garapenerako Batzordea bildu zen, eta hartutako erabakietatik abiatuz, Irizpen-proiektu hau formulatu da, Osoko Bilkurara eramateko; bertan aho batez onartu da.

## II.- EDUKIA

---

Seme-alabak dituzten Familientzako Laguntzen Dekretu-proiektuak zioen azalpen atala, lau kapitulutan banatutako 23 artikulua, xedapen gehigarri bat, lau xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapenetako bost ditu.

Zioen azalpen atalean azalduenez, lehenik eta behin, Familiei Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legeak aitortu zuenez, familiak pertsonaren funtsezko harremanak ezartzen ditu; horra bere misio ordezkazina, beste inoren esku uzterik ez dagoena. Horrez gain, jokabide ereduak, tradizioak, ohiturak, usadioak eta sineskerak transmititzeko bidea ere bada. Legeak, gainera, aitortu zuen familia etengabeko eboluzioan dagoen errealitatea dela, eta hainbat forma har ditzakeela; horregatik, gizarteak zentzu pluralean aitortu eta babestu behar du: familia guztiek bete dezakete sozializatzeko eta familia osatzen duten pertsonen errealizazio pertsonalerako misioa.

Etorkizunera begira, legeak adierazi zuen, familiei babesa emateko Eusko Jaurlaritzak onartuko dituen hurrengo erakunde arteko planen esparruan, seme-alaba adingabeak izateagatik EAEko administrazio publikoek emango dituzten laguntza ekonomiko zuzenei lotutako prestazioak pixkanaka handitu egingo direla, 2020. urteko horizontean Europar Batasunarekin bat etortzea lortze aldera.

2015ean martxoaren 17ko 30/2015 Dekretua argitaratu zen, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituen (ondoren uztailaren 30eko 121/2018 Dekretuak aldatu zuen); gaur egunera arte seme-alabak dituzten familiei zuzendutako laguntzen sistema arautu du.

Azken urteetan EUSTATEko datuek joera demografiko kezkarria erakutsi dute: Euskadiko jaiotza tasak Europako batez bestekoa baino askoz baxuagoak dira, eta behera egiten jarraitzen dute. Gainera, prospekzio soziologikoen azaldu dute EAEko herritarrek nahiko lituzketen seme-alabak baino gutxiago dituztela, eta horren kausa nagusia arrazoi ekonomikoak direla adierazi zuten.

Egoera horri aurre egiteko, 2022ko ekainaren 21ean Gobernu Kontseiluak Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategia onartu zuen, eta esparru horretan EAEko erakundeek orain arte egindako ibilbidea integratu du: Familia eta Hautzaroren aldeko Euskal Ituna, Euskal Autonomia Erkidegoko

Familiei laguntzeko Erakunde Arteko IV. Planean (2018-2022) gauzatu zena, eta XII. Legegintzaldiko Gobernu Programa, non erronka demografikoa herriaren hamar helburuen artean ezarri baitzen.

Estrategiak Europako testuinguruan berriki hartutako neurriak aztertu ditu, eta ondorioztatu du demografiaren beherakadari erantzuten emaitzarik onenak lortu dituzten herrialdeek inbertsio nabarmenak egin dituztela seme-alabak hazten laguntzeko politiketan, eta haur adineko seme-alabak dituzten familientzako laguntza luzeak dituztela.

Estrategiaren helburuen artean familia proiektuak eraikitzeko laguntzak diseinatzea eta jaiotzak sustatzeko laguntzak daude, gure ingurunean emaitzarik onenak lortu dituzten herrialdeen mailan, joera aldatzea lortzeko; hala, demografia beherakadaren agertokian egotetik berreskurapen demografikoko agertokira igaroko ginateke.

Laguntza horien artean, Estrategiak honako hau aipatu zuen epe laburreko inpaktua izango duen irizpide jarduketa modura: hileroko 200 euroko laguntza zuzena artikulatzea seme edo alaba bakoitzeko, haurrak 3 urte bete arte. Adierazi duenez, laguntza hori bateragarria izango da 4 eta 7 urte artean familia ugariak gaur egun dituzten prestazioekin, gaur egungo kenkari fiskalekin eta DSBEko seme edo alabarengatikoa laguntzekin.

Azaldutako egoera oinarritzat hartuz, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak seme-alabak dituzten familientzako laguntzen esparru berria arautzeko ardura dauka, laguntza ekonomiko jarraituak eta jasangarriak emateko eta, hala, hazkuntzaren aldeko ekosistema sortzeko.

Dekretu hau modu honetan egituratu da:

- **Lehen kapituluaren** izenburua Xedapen Orokorrak da, eta araudiaren helburua, aplikazio eremua eta kontzeptuak ezarri ditu.
- **Bigarren kapitulua** seme-alaba bakoitzari dagokionez laguntza ekonomikoei buruzkoa da, eta jarduteko bi modalitate arautu ditu:
  - ✓ Hileko 200 euroko laguntza bat, haur bakoitzak hiru urte bete arte.
  - ✓ Hirugarren eta hurrengo seme edo alaben kasuan, hileko 100 euroko laguntza gehigarria haurrak hiru urte dituenetik zazpi urte bete arte.

Aurreko araudian bezalaxe, laguntza eragin duen semeak edo alabak %33ko edo gehiagoko desgaitasun aitortua badu, edo Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea dela bide aitortutako mendetasun egoeran badago, aurreko bi puntuetan aurreikusitako laguntzak bikoiztu egingo dira eskusiboki egiaztatutako desgaitasuna duen semearentzat edo alabarentzat.

Kapitulu honetan araututako laguntzak ez dira errenta mailaren arabera zehaztuko: kopuru finkoak dira, berdinak familia guztientzat. Hala, jaiotzen den haur bakoitzak gure gizartean duen balioa aitortu nahi da, baita familia horrek haurra hazteko eta hezteko egiten duen esfortzua ere, familiaren diru sarrerak edozein direla ere.

- **Hirugarren kapituluan** erditze edo adopzio nazional anizkoitza eta nazioarteko adopzioa direla eta emango diren ezohiko laguntzak arautu dira. Ordainketa bakarreko laguntzak izango dira eta laguntzen kopurua familia errenta estandarizatuaren eta erditze edo adopzio anizkoitzetako

seme-alaben kopuruaren araberakoa izango da.

- **Laugarren kapituluan** laguntzak kudeatzeko xedapen komunak bildu dira. Aurreikusitako prozeduran familiek lehen hiru urteetan seme edo alaba bakoitzeko eskaera bakarra egingo dute, eta beste eskaera bat hurrengo lau urteetarako, hirugarren eta hurrengo seme-alaben kasuan. Ebazpenean dagozkion urteko guztien laguntza aitortuko da, eta sarbide betekizunak mantendu egin behar dira laguntza aitortu den aldia. Horregatik, laguntzen kudeaketan bat-batean sortutako ez-betetzeak aurreikusi dira, baita ez-betetzeen zantzuen aurrean kautelaz eteteko beharra ere.

Azkenik, araudi esparru berri honek dakarren aukera baliatu nahi da laguntzak eskatzeko sistema erraztu eta hobetzeko eta espedienteak kudeatzeko prozedura modernizatzeko, existitzen diren aukera teknikoek ahalbidetzen duten neurrian, efizientzia eta efikazia helburuak lortze aldera.

### III.- GOGOETA OROKORRAK

---

#### a) Aurretiazko oharra

Lehenik eta behin, deigarria iruditzen zaigu Seme-alabak dituzten Familientzako Laguntzen Dekretu Proiektua Batzorde honetara zein azkar igorri den, eta kasuan kasuko irizpena premiaz prestatzeko eskatu zaigu; horrenbestez, epe guztiak erdira laburtu dira.

Gogoratu behar dugu, dekretu proiektuaren inguruan igorri diguten memorian ageri den moduan, lehendakariak 2022ko maiatzaren 18an iragarri zuela Eusko Legebiltzarrean “hileko 200 euroko laguntza zuzena emango zela seme edo alaba bakoitzeko haurrak 3 urte bete arte, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera”.

Ondoren, 2022ko uztailaren 14an, proiektu hau prestatzeko espedientea hasia ebatzi zen; aurretiaz Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak onartu zuen azaroaren 7an.

Gure ustez, denboren erabilera desegokien emaitza praktikoak eraman gaitu, duen garrantzia dela medio, eztabaidarako denbora espazio zabalagoak merezi dituen dekretu proiektu baten inguruko irizpena eman behar izatera.

---

Bigarrenik, irizpen hau hasi nahi dugu EGABek berak martxoaren 9ko 4/18 Irizpena zela medio esandakoa berretsiz, seme-alabak dituzten familientzako laguntzak aldatzeko aurreko proiektuari zegokiona.

Irizpen horretan Batzorde honek adierazi zuenez, “laguntza ekonomikoek betebeharrak garrantzitsua daukate”; horrez gain, Batzordeak irizpen honetarako balio dezakeen hausnarketa gisa azaldu zuenez, “aski prestazio ekonomiko emateaz gain, ezinbestekoa da zerbitzu eta ekipamenduen eskaintza aski zabal sendotzea, familiek nahi dituzten seme-alabak izatea eta haien bizitzaren esparruak ongi bateratzea ahalbidetuko duena”.

#### b) Balorazio orokorra

EAEn, azken urteetan, geldialdi demografikotik atzerakada demografiko argira igaro gara. Estatu mailako erkidego oparoenetako bat izanik, bertako populazioak gutxieneko hazkundera izan du (% 2,6

azken 42 urteetan) Madril bezalako beste erkidego batzuekin konparatuta (Madrilgo populazioa % 47,1 hazi da, EINren datuen arabera). Gainera, proiektioen arabera, gaur egungo atzerakadak okerrera egingo du.

Erkidego gisa, joera aldatzeko erronka handiaren aurrean gaude benetan ongizate eta gizarte oparoa eraikitzen jarraitu nahi badugu; hortaz, erakunde publikoek estrategia eta ekintza ugari jarri behar dituzte martxan eragile ekonomiko eta sozial guztiekin lankidetzan.

Erronka horiei aurre egite aldera, 2022an Gobernuak Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategia prestatu zuen, eta bertan Europako testuinguruan berriki hartutako neurriak aztertu ziren: beherakada demografikoari erantzuten emaitzarik onenak lortu dituzten herrialdeek, Frantziak eta Suediak, inbertsio nabarmenak egin dituzte seme-alabak hazten laguntzeko politiketean, eta haur adineko seme-alabak dituzten familientzako laguntza luzeak dituzte biek ala biek.

Testuinguru horretan, aurkeztu zaion arau proiektuan aurrerapenak identifikatu ditu Batzorde honek, proposatutako helburuak lortze aldera.

Besteak beste, honako hauek nabarmendu behar dira:

- ✓ Laguntza hauek eragiten duten aurrekontu esfortzua; kopuru handiak direnez eta duten iraupena dela-eta, gure aitortzea merezi duen aurrerapena dakarte.

Hiru seme-alaba edo gehiago dituzten familien kasu zehatzean, arau berriak 2015eko Dekretuak aurreko araudiari dagokionez eragindako murrizketa lehengoratzea dakar, gutxienez partzialki, baina gogoratu behar dugu laguntza hauek oraindik urrun daudela 2008an Familiei Laguntzeko Legeak berak 2020. urterako helburu gisa erreferentziako EBko herrialdeekin bat egiteko aipatutako laguntzetatik<sup>1</sup>. Hain zuzen ere, laguntzak adin nagusitasunera arte luzatzeari buruz ari gara, Eusko Jaurlaritzak erreferentzia gisa hartu dituen herrialdeetan gertatzen den moduan.

- ✓ Laguntzak unibertsalizatzea; lagungarria izango da familiek nahi duten seme-alaba kopurua izateko (hurrengo atalean adieraziko duguna gorabehera).
- ✓ Familia zehaztasunak barne hartuko dituen laguntza sistema bat konfiguratzeko ahalegina, zehazki familia aniztasunari eta haien inguruabar edo beharrez zehatzei dagokienez (nazioarteko adopzioa, desgaitasun edo mendetasun egoera, erditze anizkoitzak eta abar).
- ✓ Halaber, laguntzak eskatzeko sistema erraztu eta hobetzeko eta espedienteak kudeatzeko prozedura modernizatzeko esfortzua ere baloratzen dugu (15. art.), aukera teknikoek ahalbidetzen duten neurrian; izan ere, funtsezko gaia da pertsona onuradunentzat.

### c) Irizpide aldaketa II. Kapituluko laguntzei dagokienez

Seme-alabak dituzten familiei laguntza ekonomikoa emateko politika publikoa estrategia orokor baten parte modura ulertu behar da; estrategia orokor horren parte izango dira, halaber, hezkuntza, etxebizitza, zerga eta beste arlo batzuetako beste politika publiko batzuk, bat egin nahi dugun Europako esparruan egiten den moduan.

---

<sup>1</sup> Familiei Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legearen Azken Xedapenetako Hirugarrenean ezarri zen moduan, "...hurrengo familiei laguntzeko erakunde arteko planen testuinguruan, aztertu ahal izango da ea komeni den adingabeko seme-alabengatik ematen diren zuzeneko diru-laguntzak periodifikatzea, 2020. urtean Europar Batasunaren mailan izateko, are kudeaketa sistemari dagokionez ere".

Familia politiken eta politika sozialen multzo horretan, oro har, unibertsaltasuna eta ekitatea bilatu behar dira; unibertsaltasuna pertsona guztientzako eskubide berdinen berme modura ulertuta, eta ekitatea, ostera, beharizan desberdinen arabera egoera desberdinen tratamendu desberdin gisa ulertuta.

Ez da ulergarria dekretu honetan errentaren arabeko progresibitatea prestazio batzuetan ezabatzea eta beste batzuetan ez; nolana ere, ez da ulergarria erabaki hori justifikatzeko administrazioen arteko informazioaren interoperabilitatearen zailtasunei erreferentzia egitea, edo pertsona hartzaileen ustezko estigmatizazioari erreferentzia egitea, ez litzatekeena inoiz gertatu behar.

Politika publikoetan aurrera egiteko, batzuetan, oreka zailak aurkitu behar dira printzipio baliagarrien artean, unibertsaltasunaren eta ekitatearen arteko oreka, esaterako. Horretarako, prestazioak errentaren arabera progresiboak izateari edo ez izateari dagokionez hartutako formula zehatzetan dekretu honek dituen aldaketak eragile sozialen artean eztabaidatzen dira.

Horregatik, funtsezkoa iruditzen zaigu dekretu honek gai horri lotuta jaso dituen neurriak tentu handiz ebaluatzea, beste politika batzuekin duten elkarrekintzan, bereziki neurri fiskalekin eta familian eta gizartean inpaktu berezia duten zerbitzu publikoko neurriekin.

## IV.- GOGOETA BEREZIAK

---

### 5. artikulua.- Seme-alabak hazteko eta mantentzeko laguntzak

Artikulu hori testu honekin hasten da:

*“Seme-alaba guztiak haztea eta mantentzea diruz lagunduko da, hilero 200 euroko kopuruarekin, termino hauetan: a) Jaiotza kasuetan...”*

Formatu horrek zalantzak sorrarazten dizkigu interpretazioari dagokionez. Ez dago argi familiari guztira 200 euroko kopurua duen dirulaguntza emango zaion, hiru urtetik beherako seme-alaben kopurua edozein dela ere, edo, aitzitik, familiari 200 euroko laguntza emango zaion familia unitatean dagoen hiru urtetik beherako seme edo alaba bakoitzeko.

Lehen artikuluko azken paragrafoarekin bat etorritik (*“Familia unitate berberak ezarritako adin eta ordena betekizunak betetzen dituzten seme-alaba adina laguntza jaso ahal izango ditu”*), badirudi aukera zuzena bigarrena dela; kasu horretan, bosgarren artikulua aldatzeko iradokitzen dugu, gorago azpimarratutako testuaren ordean jarraian letrakera lodian adierazitakoa jarritz:

***“Seme eta alaba bakoitza haztea eta mantentzea diruz lagunduko da, hilero 200 euroko kopuruarekin, termino hauetan: a) Jaiotza kasuetan...”***

### 6. artikulua.- Hirugarren edo hurrengo seme-alaben kasuan hazteko eta mantentzeko laguntza gehigarriak

Artikulu horretako **lehen apartatuan** ezarri denez, *“hirugarren edo hurrengo seme-alabak haztea eta mantentzea diruz lagunduko da hilero 100 euroko kopuruan, semeak edo alabak 3 urte betetzen dituenetik 7 urtera arte, 4 urtez”*.

Testuak berriz ere nolabaiteko interpretazio nahasmendua eragin digu. Gure ustez ulertu dugunez, 100 euro gehigarriko laguntza hirugarren semeari edo alabari emango zaio, laugarrenari, hala badagokio, eta hurrengoei ere berdin. Horren haritik, testua hobeto ulertzeko, gure proposamena da aldaketa bat

egitea “edo” hitzaren ordean “eta” erabiltzea; hala, testua honela geratuko litzateke:

**“1. Hirugarren eta hurrengo seme-alabak haztea eta mantentzea diruz lagunduko da hileroko 100 euroko kopuruan, semeak edo alabak 3 urte betetzen dituenetik 7 urtera arte, 4 urtez”.**

**14. artikulua.- Laguntzaren onuraduna izateko betekizunak; 20. art.- Pertsona onuradunen betebeharrak; eta 21. art.- Ez-betetzeak eta dirua itzultzea**

Artikulu horretako **lehen apartatua** ezarri zenez, “*pertsona onuraduna Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan modu eraginkorren bizi beharko da eta bertako erroldan agertu beharko da, eskaera aurkezteko data baino gutxienez urtebete lehenagotik*”.

Lehenik eta behin, ikusi dugu pertsona onuraduna izateko betekizunen artean EAEn erroldatuta egotea ageri dela.

Hala ere, erroldatu eta modu eraginkorren bizitzeko betekizun hori ez da betebeharrak gisa ageri 20. artikuluan eta, horrenbestez, ez da ageri, ezta ere, laguntza itzultzea eragingo duen ez-betetze kasu modura (21. art.).

Erronka demografikoa aintzat hartuz, gure ustez mota honetako laguntzek, beste laguntza batzuekin batera, seme eta/edo alabak dituzten familiek benetan Euskadin bizitzea sustatu beharko lukete, beste erkidego batzuetan bizitzea saihestuz. Euskadin bizi ez direnei dirulaguntzak ordaintzea ez dirudi zuzena denik.

Horrenbestez, errolda eta bizitoki eraginkorra Euskadin mantentzeko betekizun hori aurreikustea proposatu behar dugu, baita betekizun hori betetzeari utziz gero laguntza iraungitzea ere, dekretu proiektuaren 20. eta 21. artikuluetan egokituz.

Hala ere, 14.1 artikuluan aurretiaz erroldatzeko urtebeteko betekizunari salbuespen bat gehitzea gomendatzen dugu, hain zuzen ere genero indarkeriaren edo etxeko indarkeriaren biktima diren pertsonentzat.

Izan ere, tamalez, kauistikak azaltzen duenez, biktima izaten da lekuz edo bizitokiz aldatzen dena, eta batzuetan bat-batean gertatzen da. Salbuespen hori gabe, biktimak zigor bikoitza jasoko luke

## V.- ONDORIOA

---

EGABek egokitzen du *Seme-alabak dituzten Familientzako Laguntzen Dekretu Proiektuaren* izapidetzea, kontsulta organo honek plazaratu dituen oharrekin.

Bilbon, 2023ko urtarrilaren 16a

O.E. Presidentea

Idazkari nagusia

Emilia M. Málaga Pérez

Olatz Jaureguizar Ugarte



## VI.- ERANSKINA: OHAR FORMALA

---

Sintaxiari buruzko ekarpen modura, dekretu berriaren gaztelaniazko izenari dagokionez (*Ayudas a las familias con hijas o hijos*), gure ustez egokiagoa izango litzateke “y” erabiltzea (alegia, eta), aurreko arauetan ezarri bezala, eta dekretu berriaren artikulatuan bertan aurreikusi den moduan, “seme eta alabak hazteko eta mantentzeko laguntzak” aipatzerakoan.